



Jolas heuristikoa

DOKUMENTAZIOA

Ertainen taldea, 1-2 urte



OIARTZUNGO
UDAL IKASTOLA
PARTZUERGOA

SARRERA

Hemen dugun lantxo hau, 1-2 urteko ertainen taldean lantzen den Jolas Heuristikoari buruz datza. Jolas heuristikoa, altxorren saskiaren jarraipen bat da. Hemen azaltzen diren haurrek lehenengo urtea dute haurreskolan, beraz, aurrez ez dute altxorren saskiarekin kontakturik izan.



Dokumentazio hau 2006-07 ikasturtean egina dago.

Jolas Heuristikoa, 0-3ko eskolan garatzen da, 12 hilabetetik 20-24 hilabeteetara hain zuzen ere. Talde txikian egiteko jolasa da. Haurren bapateko ekintzak erabiltzen dira jolasean. Era berean, pentsamendua, hizkuntza, erlazio pertsonalak eta haurren ekintzak estrukturatzen laguntzen du. Bi fase ditu: lehendabizikoan, haurrek materiala aztertzen dute eta objektu batzuk besteekin konbinatzen dituzte. Bigarrean aldiz, hezitzaileak gidaturik eta era antolatu batean, haurrek materiala jasotzen dute. Hala eta guztiz ere, aipatu behar da jolas heuristikoa ez dituela normalean eskolan egiten diren gainontzeko ekintzak alde batera uzten.

Materiala: hiru material mota daude, objektuak, edukiontziak eta poltsak.



Erabilera ludiko jakin bat ez duten objektuak erabiltzen dira, baina elkarren artean konbinatzeko errezak direnak: naturatik jasotakoak, etxean, dendetan e.a.-etan bilatutakoak, jokuarentzat espreski eginak edo erositakoak. Zenbat eta aukera zabalagoa izan, orduan eta konbinazio handiagoak eskeini ahal izango dira.



Ondoren, objektuen adibide batzuk adierazten dira:



Edukiontzia bere barnean edozein gauza gordetzeko prestatuak egon behar dira: edukiera sakona, gogorak eta hurrek errez erabiltzeko prestatuak.



Poltsak telazkoak izango dira eta irekigunea josita egotea komenigarria da identifikatzeko errazagoa suerta dadin. Poltsek bi funtzio nagusi izango dituzte: jolas materialak txukun gordeta izateko eta jokuak irauten duen bitartean, materialak jaso ahal izateko.



Sesio baten garapena: sesio bakoitzaren hasieran, irakasleak jokua garatuko den gela prestatuko du; erabiliko ez den material guztia alde batera utzi eta jolas heuristikoa beharrezko izango den espazioa sortuko du. Hiru edo lau objektu mota aukeratuko ditu. Poltsetatik objektu mota bakoitzeko unitateak atera eta edukiontzia prestatuko ditu. Gelako lurrean, distantzi berdinerara dauden bost puntu ezberdinetan edukiontzia kokatuko ditu. Beste tokietan aukeratutako objektuak utziko ditu, poltsak jaso egingo dituelarik.



Hezitzaileak haurren garapenaren kontrola eraman behar du, hori behaketaren eta apunteen laguntzaz egingo du. Lasaitasunez behatu behar du haurren ekintza eta honen bidez taldearen ikuspegi globalaren ideia atera dezake. Bera gelako aulki batean eseriko da, non hau, estrategikoki kokatua egongo den gelako ikuspuntu osoa hartzen duena eta, haurrek ere bera ikusteko arazorik izango ez dutena. Al duen gutxien mugituko da, beharrezko kasuetan salbu. Behatzailearen rola hartuko du haurrak konturatu gabe noski, eta segurtasuna emango du bere presentziarekin soilik.

Hezitzaileak zer behatu behar duen jakin beharra du, horregatik puntu edo pauta batzuk kontutan izan behar ditu hala nola,

- kontzentrazioarako kapazitatea,
- jolasean parte hartzen duen,
- materialak nahasten dituen edota aspertzen den,
- jasotzeko garaian parte hartzen duen ,
- inizatiba duen,
- jolaserako giro lasaia eta isilezkoa mantentzen duen,
- beste haurren presentzia onartu eta errespetatzen duen.
- ...




Haurrak askatasun osoz ariko dira objektuekin jardunean, aztertzen eta bakoitzak bere modura konbinatzen. Ondoren, gerta daitezkeen ekintza batzuk aipatuko ditut:

ireki-itxi...



sartu-atera...





gehitu, pilatu...



jaurtiki...



banatu...



kolpatu...



itsatsi...



biratu arazi...



poteari dagokion tapa aurkitu...



edukiontzi batetik bestera materiala sartu....



dorreak egin eta bota...



beste hauren parte hartzea onartu...



Bigarren zatian, objektuak jasotzen dira. Haurrek lurtean dauden objektuak hartu eta bakoitza dagokion poltsan sartuko dituzte irakaslearen laguntzaz. Atal honetan, helduen lana da haurren zereginaren nondik norakoa bideratzea. Haurren mugikortasuna lantzen du, objektu gehienetarako toki batetik bestera joateko ekintza burutu beharko baita. Pentsamendua estrukturatzen lagunduko die objektu bakoitza dagokion poltsan sartzeko sailkatzen dituztenean. Hasierako zatian ez bezala, non helduak begirale ixilaren rola betetzen zuen, oraingoan bere hitzek haurren ekintzak zuzenduko ditu.



Familiaren laguntza eta inplikazioa ere garrantzitsua dela azpimarratu behar dugu bai materiala lortzeko garaian, bai ideia berriak emateko garaian ere. Hezitzaileok gonbidapena luzatuko genieke.

Saio hauek astean bi aldiz egitea komenigarria litzateke eta 20-30 minutuko iraupena izango dute. Iraupena malgua izango da, haurren jarreraren arabera. Haurrak aspertzen hasten badira edota interesa galdu dutela jabetu bagara, saioa bukatutzat emango dugu. Gustura ari badira aldiz, pixka bat luzatu daitezke baina, jasotzerako orduan ere gustura arituko direla ziurtatuz.

Teoria hau guztia alde batera utziaz eta praktikan pixka batean murgilduz, zera aipatu behar da, haurrei eskeintzen dizkiegun materialak funtsezko garrantzia dutela. Hau da, kontutan izan behar dugu zein material eskeintzen dizkiegun, berauek egokiak diren, kopuruak nahikoa diren, ditugun helburuak lortzeko bat datozen...

Jolas honekin hartueman gehiago izan dudanean "arazotxo" batetaz ohartu naiz: hasiera batean haurrei jolas hau aurkezten diezunean, oso arretatsu eta kontzentratuta egoten direla, dena berria baita beraiantzat. Baina denbora iragan ahala zeraz konturatzen zara, haurrak aspertzera iritsi daitezkeela beti material berdina manipulatzeaz edo esperimentatzeaz. Beraz, maiztasun batez materialak aldatu egin behar dira, haurrak aspertzen hasiak direlako, motibaziorik sortzen ez dielako edota interesa beste leku batean jarria dutelako...



Aurreko argazkietan ikusten den bezala, batzuetan haurrak ez dute eskeinitako materialarekin interes handirik agertzen, hau aspertzearen seinale garbi bat izan daiteke. Beraz, beste aukeren bila joaten dira, txirristara, sukalde txokora; gertatu ohi izan da ere haurrek beste nonbait izatea euren interesa une horretan. Adibide bat jartzearren, azkeneko argazkian argi ikusten da egun horretako kazkabarra saioak, normala den bezala, askoz ere interes handiagoa zuela jolas heuristikoak baino... honekin zera esan nahi dut, badaudela egoera batzuk kontrolaezinak direnak, ez daudenak hezitzailearen esku, beraz, normala den bezala, beti ere ez da batek nahi lukeen bezain ongi ateratzen jolasa hau, hurrei arreta beste zerbaitek edo norbaitek sortarazten dienean behintzat.

Manipulatzeaz aspertu diren egoeren aurrean soluziorik onena materialaren aldaketa da, interes berriak piztea, esperientzi berriak eskeintzea...



Gerta daiteke ere haur batzuei material mota batek bere textura edo taktua, itxura, ... e.a-engaitik ez erakartzea, adibidez Telmok ez du inoiz zapiekin jolasten, seguruenik ez zaio taktua gustatzen...



Udaneri berriz, asko gustatzen zaio...



Hala eta guztiz ere garrantzitsua da jolasa noiz amaitu behar den jakitea. Haurrei ez zaie sekulan jolas honetara jolastea behartu behar, beraz, taldea oso motibatuta ez dagoenean, bigarren fasera pasatzea komenigarria da, hau da, material bakoitza bere zakuan jasotzearena. Geroz eta arrakasta gutxiago baldin badu jolasak asteen bi egunetan burutu ordez, asteen behin burutzera pasa beharko litzatekeela uste dut.



Gurasoen iritziak:

- *“Jolas heuristikoaren dokumentazioa asko gustatu zaigu. Argazkiak asko laguntzen du jolas honen garrantzia ikusteko. Askotan, gauza hauei ez zaie arreta handia jartzen bainan laburpen honekin, bat konturatzen da garrantzi handia duela. Bakoitzaren haurraren arreta, imajinazioa, pazientzia, e.a. ikusteko. Bukatzeko esan dezaket jolas honek haur bakoitzari buruz asko esan dezakeela.”*
- *“Jostailu heuristikoak lehenengo aldiz entzun nuenean, oso gauza harrigarria iruditu zitzaidan. Gero ikusi eta ikasi nuenean zertaz zihoan, nere harridurak gailentzen jarraitu zuen, oso xelebrea iruditzen baizitzaidan haurreskolan horrelakorik erabiltzea. Hala eta guztiz ere, oso ondo iruditu zitzaidan, zeren eta haurrek beti zerbait berria behar dutela pentsatu bainuen, beti gauza berdinekin aspertu egiten baitira.
Nik nere etxean, pentsatzen dut beste guraso asko bezala, jakin gabe heuristikoak zirela, hainbat traste erabiltzen ditut jostailu bezala. Alde batetik lehen esan dudan bezala, beti gauza berdinekin aspertzen direlako eta beste alde batetik, gure “esploratzaile txiki” hauei, esploratzeko aukera eman behar zaielako. Askotan jostailu tradizionalak gehiegi markatzen diote nola jolastu eta erabili, heuristikoak berriz, bere buru txiki horietan dituzten asmakizunak martxan jartzeko aukera ematen diote.
Askok gustatu zait nola idatzi duzun lana, nola esploratzen duten ikusteko aukera eman baitit, ez bainintzen banan-banan inoiz pentsatzen jarri.
Neregatik oso ideia ona da horrelako “trasteak” erabiltzea eskolan ere. Bere imajinazioa lantzeak, bere hezkuntza aberastu besterik egiten baituela iruditzen zait.*
- *“Gurasoei, haurrekin horrelako lanak egitea oso interesgarria iruditzen zaigu. Iharduera horietan interesa jartzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu beraientzat. Baita bakarka eta taldean lan egitea ere. Beraien gaitasuna lantzen dute”.*

- *“Oso interesgarria iruditu zait. Jolasteaz gain ikasi ere egiten dute eta arauak barneratzen joaten dira ere”.*

- *“Jolas heuristikoen txostena ikusita, konturatzen naiz zein ezagunak egiten zaizkion etxean egiten dituen gauza asko. Arraultze kaxetan gauzak sartu, atera, kaxa itxi, edo neurri desberdinetako potoen jolasa (sartu, atera, jaurti...), edo ur botilari edo edozein ontziri tapa jarri nahia eta abar eta abar. Oso ondo iruditzen zait joko heuristikoa lantzea. Etxean asko entretenitzen da bera bakarrik, ni etxetik nabilen bitartean, edota beste norbaitekin (aitatxo, aitona...) jolasean. Eta gainera oso ondo ulertzen du jasotzeko esatean edota guk gauzak jasotzeko eskatzen diogunean, gauza bakoitza dagokion lekura eramaten saiatzen da.”*



Egilea: Garbiñe Ugalde
Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoko irakaslea

2006-2007 ikasturtea